

Intxaurrondo

Euskal Aste oparoa

Plazara Goaz taldeak eta Donostia Kulturak antolatuta, Euskal Astea egingo da Intxaurrondon hilaren 14tik 19ra bitartean. Hamaika ikuskizunetz eta ekitaldiz jositako astea izango da honakoa.

Unai Zubeldia

Pello Añorga ipuin kontalariaren emanaldiarekin hasiko da Euskal Astea urriaren 14an, astelehena. Añorgak bost eta bederatzirte bitarteko haurrentzat zerbait ipuin irakurriko ditu Intxaurrondo Berri kultur etxean, 18.00etan.

Asteartean, Isabel Salinas poetak eta Elzbieta Podola txirulajoleak poesia eta musika ikuskizuna eskainiko dute 19.30ean Zubiaurre pasealekuko Arte Estudioan. Hurrengo egunean, bestalde, Mertxe Urteagak "Gipuzkoarren bizimodu erromatarren garaiari"



Txan magoa larunbatean, hilak 19, ariko da Txiki tabernan.

proiekzio-hitzaldia eskainiko du Ipar Haizea Auzo Elkartearen egoitzan 19.30ean.

Bertso afari experimentalak

Ostiralean ere izango da zer ikusi, zer entzun eta zer dastatu. Izan ere, Ramon Bareak "Bigarren Mundu Gerra Euskal Herriari" hitzaldia eskainiko du Intxaurrondo Berri Kultur Etxean 19.00etan, eta Artzak

Ortzeok ekartean bertso afari experimentalak egingo da 21.30ean. Bertso afari honetan, Jon Maia, Sustrai Colina eta Unai Elizasu bertsolariak ariko dira. Ekitaldi honetarako txartelak 15 eurotan (langabe-tuentzat 10 eurotan) salgai daude.

Azkenik, larunbatean, haurrentzako eta helduentzako ikuskizunak izango dira. Goizean, 11.30etik 13.30ak bitar-

Ostiralean bertso afari experimentalak egingo da

tean, haur jolasak egingo dira Sagastieder plazan. Arratsaldean, bestalde, haurrek "Kontu kontu zan" haur antzerkiarekin gozatzeko aukera izango dute Intxaurrondo Berri kultur etxean, 17.30ean. Haurrek ez ezik, helduek ere izango dute ondo pasatzeko aukera, Txan Magoak Txiki tabernan 22.30ean eskainiko duen emanaldiarekin.

Ekitaldi hauez gain, hilaren 14tik 18ra bitartean, bi erakusketa bisitatu ahal izango dira auzoan. Alde batetik, Larrotxene Kultur Etxean, Euskal Herriko soinu tresnak ikusi ahal izango dira 16.30etik 20.30ak bitartean. Bestetik, Ipar Haizea Auzo Elkartearen egoitzan, "Gipuzkoarren bizimodu erromatarren garaiari" erakusketa ikusgai egongo da. Erakusketa honen ordutegia honakoa izango da: 18.30etik 20.30era.



ALDAIA
taberna
Ikatz kalea 8



FEDERIKO
EGUNEZ ETA GAUEZ GIRORIK ONENA
FERMIN KALBETON 27



TIVN TIVN
TABERNA
San Jeronimo 25

Parte Zaharreko martxarik onena



TABERNA
Lore-ku
Gozatzeko musikarik onena
Fermin Kalbeton 26



TABERNA
15 konstituzio plaza



ALTERRI
Erregina Erregina, 2 • DONOSTIA

Gaztetxoko lagunak antzezle eta dantzari

Duela ia urtebete antzeztu zuten lehen aldiz Gaztetxo elkarteok "Schindler" musikala auzoan. Gasteizen ere taularatu dute, eta ostiralean, hilak 12, Bilbon ariko dira.

Ainara Sarobe

Gaztetxo elkarteak 1975ean sortu zen auzoko Salesianos ikaste-

txearen baitan, eta ordutik ezin konta ahala ekimen egin dituzte: irteerak, jokoak, tailerrak, laguntza eskolak... Ekintza horien guztien artean, antzerki eskolak izan du arrakasta gehien. 2000. urtean sortu zuten, eta "Schindler" musikala izan da eskaini duten lehen obra. "Schindler's List" filmaren egokitzapena da musikala. Pelikulak bezala, nazien hatzaparretatik hainbat judutar libratu zituen Oscar Schindler-en historiaren berri ematen du musikalak. 14 eta 20 urte bitarteko neska-mutilek, antzeztu ez ezik, dantza egiten dute eszenatokian. Gaztetxon neska-mutil euskaldun dezente badaude ere, obra gaztaniaz antzeztu dute, gidoia eta elkarrizketak hizkuntza horretan jaso dituzte-eta. Obra iragartzeko kartelak zein eskuorriak, ordea, elebitan kalératu dituzte.

Gasteizen eta Bilbon

Gidoia eta musika Valentziako talde batenak dira. Obra presatatzeko entseguak 2002an hasi zituzten eta 2003ko maiatzean estrenatu zuten, auzoan bertan. Hala ere, auzotik kanpo ere antzeztu dute. Gasteizko kultur etxe batean izan ziren orain dela aste gutxi, eta ostiralean, hilak 12, Bilboko Gurutzeta auzoan izango dira. Maiatzaren 16an, azken aldiz antzeztuko dute "Schindler" Intxaurrendon bertan.

Hurrengoa prestatzen

Esan bezala, maiatza erdialdean jokatu dute "Schindler" azken aldiz. Dena dela, hu-

Maiatzaren 16an antzeztuko dute "Schindler" azken aldiz

Intxaurrendoko



rrengo obran pentsatzen hasiak dira Gaztetxoko lagunak: "El Rey Leon". Egunotan gidoia lantzen ari dira, eta ondoren pertsonaiak banatuko dituzte.

"Schindler" obrak harrera bikaina izan duenez, bertan aritu ez diren gazteak egitasmo berrian parte hartzeko gogotsu dabilta. Nahiz eta antzerki taldeko kide guztiak amateurren diren, batzuegan piztu omen da aktore izateko grina. "Bada taldean neska bat arte dramatikoa ikasi nahi duena, eta, gainera, ez du baxterre gaizki egiten", azaldu digu Gaztetxoko begirale Yuk Escribanok.



IRUTXULOK banatzaileak behar ditu

IRUTXULOOn banatzaileak behar ditugu, ostiraletan aldizkaria banatzeko. Prest zaudetenok honako telefono honetara deitu besterik ez duzue: 943 467236.

El Andorrano

1860tik zurekin

Alkandorak • Lentzeria

Garibai, 11 • DONOSTIA - Tel.: 943 420607

taberna - jatetxea

TXISKUENE



- Eguneko menuak
- Afariak
- Ospakizunak

Begiristain pasealekua 85
(Hospitaletako bidea) • Tel.: 943 45.09.87

NARRIKA taberna

Narrika 16
Tel.: 943 427327